



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2018/19 Denboraldia

## 11. ZIRKULARRA

### ARETO FUTBOLEKO PARTIDEN ORDUTEGIAK

Federazioak partidak koordinatzeko helburuarekin Batzorde honek beharrezkotzat jotzen du ondorengo arauak egitea. Derrigorrez bete behar dira, eta gure Areto Futboleko Hirugarren Maila eta Euskal Ligako Klubek irakurri beharko dituzte:

**LEHENENGOA.-** Partidak jokatzeko eguna, ordutegia eta jokalekua partidaren aurreko asteko igandearen 24.00ak baino lehen jakin beharko du Batzorde honek, hau da epea web gunean sartzeko ordua zuzenean, eta asteleheneko 14.00ak arazoren bat izango luketen klubek frogatutako aldaketa egiteko.

ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDE honi jakinarazpenak egiteko ondorengo bideak dituzue eskura: **web gunea:** [www.eff-fvf.eus](http://www.eff-fvf.eus); **Faxa:** 944 732 221, edo posta elektronikoa: [futbolsala@eff-fvf.eus](mailto:futbolsala@eff-fvf.eus)

**BIGARRENA.-** Partidak hasteko ordutegiak:

Larunbata: 15.30 - 20.30 Ord.

Igandea: 10.00 -13.00 eta 16.00 - 18.00 Ord.

**HIRUGARRENA.-** Klub guztiei jakinarazten zaie eskumena dutela aurreko puntuan ezarritako partiden ordutegi ofiziala aldatzeko; betiere aurkako taldea ere ados badago eta Areto Futboleko Euskal Batzordearen baimenarekin.

Aldaketa jasotzen duen dokumentuak klub **bakoitzaren zigilua eta sinadura izan beharko ditu** eta partidaren ospakizuna baino hamar egun lehenago aurkeztu behar da Federazioan.

Eskaera ez bada idatziz egiten, edota adierazitako epearen barruan ez bada egiten, eskatutako ordutegi aldaketa ezeztatuko da.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

-2-

Ostiral, larunbata, igandea, jaieguna edota jaiegun aurrekotan jolasten ez diren partidak, zelaiaren jabeak diren klubek 13 € gehiago ordaindu beharko diote aipatutako arbitro bakoitzari.

**LAUGARRENA.- Azken jardunaldiko partidak** egutegian finkatutako **larunbateko 18:00ean** hasiko dira guztiak, emaitzak azken sailkapenean eragina badu.

Guztiek ezagutzeko eta dagozkion xedeetarako jakinarazten da.

2018eko irailak 11, Bilbon

KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General